



«*Sasitza*» eritxon baserian.—Lenengoaz autortzen da.—Oso samur diñoskuz Terese'k bein etxez aldatu zan baserian izan ebazan jazokun edo arteki zoragañiak. Dantzuyogun.

«Neure eguneroko ibiltaldietan, Alenzon'en lez Lisiéux'en, eskekoai askotan ukarfa (limosna) eroaten neutsenik oraindiño esan ez dodalakoa daukot. Egun baten, ba, galtzarmakil batzuen gañean nekez ebilen txiro edo eskeko gixajo bat ikusi gendun; auferatu nintzakon neure dirutxua emoteko; baña berak begirada luze ta ilun bat neugan jaririk, iribaré alaitsuaz buruari eraginda ez eustan artu gura. Ezin neinke azaldu biotzean orduan jazo yatana. Nik poztu ta atsegindu gura neban, eta, biar bada, lotsatu eta atsekabetu egin neban!»

Ulertu eban, nire ustez, nire gogo ona, gero atzera begiratu ta iribaré egiten ikusi neban-eta. Aitak gozo bat erosi eustan, eta agure zañaren bila arinneketa joan eta berari emoteko gogo andiak etori yatazan, txindirik gura ez ařen, gozo a biar bada artuko eustala-ta. Alan da gusti be, eztakit nondiko bildurak euki ninduan; negar malkoai ia ezin neutsen eutsi; biotza onen mindurik neukan. Gogoratu yatan azkenean alako baten entzunda neukala batek lenengo Yaunartze-egunean eskaturiko gustia jaristen dauala, ta beriala oldozpen onek atsegindu ninduan. Sei urte baño euki ez ařen, ona zelako oldozpenak ebiltzazan nire buruan:»

«Neure lenengo Yaunartze-egunean txiro origaitik Goiko-Jaunari eskatuko dautsat»; eta asmo ori bost urte geroago zeatz bete neban. Geure Jaungoikoaren izaki

naigabetsu aren alde egiñiko eskaria onetsi eta saritua
izan zala beti siñistu dot.

Aziago ta Yauna maiteago neban; safi askotan eskin-
tzen neutson neure biotza amak erakutsitako erabidea-
ren bitartez; gauza oroetan Josu pozik eukiten alegin-
tzen nintzan, iñoz be ez iraintzeko ardura andiaz. Au ta
gusti be, egun balen, neure burua lotserazoteko da-ta,
emen esan daiken gaiztakeri bat egin neban; beragaitik
damu edo garbai osoa izan nebala, uste dot.

damu edo garbal osoa Izan nebada, 1879'garén urteko Ofílan jazoa da. Loretara joateko txikiegia nintzala ta, etxe an egiten nituan neure otoyak neskameagaz batera, neure gogoz antolatzen neban ondi edo aldaratxo baten auréan. An dana zan txikia, argitzeko -mutilak, lorontziak eta gustia; eurok ederto argitzeko naikoa ziran argizagi (kandela) bi. Noizean bein neure argizagiak geiago iraun egien, argai edo kandela-mutur bi ekarstazan Bitorik, baña au banaka batzuetan baki.

SANTI, K. O.

(Jācītūkō dāu).